

163/16 PRENTSA OHARRA

DBUSEN ZERBITZUAK ABENDUAREN 24an ETA 25ean

Gabon gaua eta Eguberri eguna direla eta, Dbus-en autobusen ordutegietan ondorengo aldaketak egingo dira:

➤ **Abenduak 24, larunbata, Gabon Gaua**

Larunbatean, abenduaren 24an, Gabon Gaua dela eta, Dbus-en linea guztiek 20:00ak eta 20:30ak artean amaituko dituzte zerbitzuak. Gauean ez dira Gautxori zerbitzuak egongo. Kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan.

➤ **Abenduak 25, igandea, Eguberri Eguna**

Igandean, abenduaren 25ean, Eguberri Eguna dela eta, zerbitzuen ordutegietan aldaketak egingo dira. Kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan.

OLENTZEROREN ETORRERA HIRIRA

Ostiralean, abenduaren 23an, eta larunbatean, abenduaren 24an, Dbus-en zenbait lineek geltoki aldaketak egingo dituzte Olentzeroren etorrera dela eta.

OLENTZEROREN ETORRERA AUZOETAN

Ostirala, abenduak 23 - Antiquo:

➤ **5. BENTA-BERRI LINEA, 19:00etatik 21:30era**

Matia kalearen itxiera dela eta, Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, Zarautz Hiribidea 60, 90 eta 122 **beste geltoki hauetara lekualdatuko dira:** Zumalakarregi 10, Anbulategia, Magisteritza, Unibertsitatea, Tolosa Hirib. 112 eta 138.

Larunbata, abenduak 24 - Antiquo:

➤ **5. BENTA-BERRI linea 11:00etatik 13:30era:**

Matia kalearen itxiera dela eta, Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, Zarautz Hiribidea 60, 90 eta 122 **beste geltoki hauetara lekualdatuko dira:** Zumalakarregi 10, Anbulategia, Magisteritza, Unibertsitatea, Tolosa Hirib. 112 eta 138.

Larunbata, abenduak 24 - Bidebieta:

➤ **14. BIDEBIETA linea 17:15etik 19:15era:**

Bukaerako geldialdia egingo da Juan XXIII geltokian. Honako geltoki hauek zerbitzurik gabe geratuko dira: Julio Urkijo kaleko bi geltokiak eta Serapio Mugika. Juan XXIII-ra lekualdatuko dira.

OLENTZEROREN ETORRERA ERDIALDEAN

Larunbata, abenduak 24, 18:15etik 19:30era gutxi gorabehera:

➤ **5.BENTA BERRI eta 25.B.BERRI-AÑORGA**

Artzai Ona, Okendo eta Bulevarreko geltokiak Londres Hotelera lekualdatuko dira

➤ **16.IGELDO eta 18.SEMINARIOA**

Artzai Ona, Okendo eta Gipuzkoa Plazako geltokiak Zubieta 14-ra lekualdatuko dira.

➤ **19. AIETE-BERA BERA**

Artzai Ona, Okendo eta Gipuzkoa Plazako geltokiak Urbieta 6-ra lekualdatuko dira.

➤ **21.MUTUALIDADES-ANOETA, 26.AMARA-MARTUTENE eta 28.AMARA-OSPITALEAK**

San Martin 25, Okendo eta Bulevarreko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, Urbieta 6 edo 12-ra lekualdatuko dira, bakoitzari dagokion ohiko geltokira.

➤ **8.GROS-INTX, 9.EGIA-INTX, 29.INTX-HEGOA eta 42.ALDAPA-EGIA**

Linea hauek Legazpi kalean egingo dute amaiera geltokia. Hemendik Idiakez kaletik joango dira, Askatasunaren Hiribidea 7.ean geltokia eginez (14 linearen geltokia). Bulevar eta Askatasunaren Hiribidea 15 geltokiak bertan behera geratuko dira.

➤ **13.ALTZA**

Ohiko geltokia egingo du Bulevarrean. Ondoren Legazpi eta Idiakez kaletik igaroko da, Askatasunaren Hiribidea 7.ean geltokia eginez.

➤ **31.INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA (Aieterantz)**

Bulevarreko geltokia Gipuzkoa Plazara lekualdatuko da (14 linearen geltokia). Boulevard, Urbieta 6 eta San Bartolome geltokiak bertan behera geratuko dira.

➤ **33.LARRATXO-INTX-ANTIGUO-BERIO**

Askatasunaren Hiribidea 18-ko geltokia Londres Hotelera lekualdatuko da.

➤ **31.INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA, 33.LARRATXO-ANTIGUO (Larratxorantz), 36.ALDAKONEA-MATIA eta 37.RODIL-ZORROAGA**

Easo 9 eta Askatasunaren Hiribideko geltoki guztiak Askatasunaren Hiribidea 3.era lekualdatuko dira.

➤ **36.SAN ROKE-ALDAKONEA (San Rokerantz)**

Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta 6 geltokiak Gipuzkoa plazara (14 linearen geltokira) eta Urbieta 58.ra lekualdatuko dira.

➤ **45.ESTACIONES RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE**

Askatasunaren Hiribidea 18-ko geltokia Londres Hotelera lekualdatuko da.



Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 943 000 200 telefonoan.

